



Baliarraingo Kultur Elejira abian da

LUZE ▶ Perretxikuei buruzko saioak zabalduko du gaur Kultur Astea, eta hilaren 20ra arte iraungo du

EKITALDIAK ▶ Hitzaldiak eta gastronomia izango dira ardatzak; Jubilatuta Eguna ere egingo dute ▶ 6

TOLOSA ▶

Magrebeko II. Jardunaldiak, hausnarketa egiteko unea

Kulturartekotasuna eta inmigrazioa izango dute gaur hizpide, mahai-inguruan ▶ 3



Kultur Etxean argazki erakusketa jarri dute. I. ETXEBESTE



L. MONTES

Material azoka eta erakusketa Oargin

TOLOSA ▶ Mendi Hamabostaldian murgilduta dago elkarteak; datorren astean, hitzaldien eta proiektuoen txanda izango da ▶ 2

BERROBI ▶

XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa, prest

Gaur egingo dute partiden zozketa; hilaren 19an ekingo diote lehiari ▶ 7

TOLOSA ▶

Gurasoen Topaketak, gaurtik maiatzera

Hezitzeko trebetasunez ▶ 2

elkar-ekin gaude



MENDIA ▶

Oargi ekitaldiz blai, mendia aitzaki

Azoka, hitzaldiak, erakusketa eta mendi irteerak izango dira bi asteotan

NOELIA LATABURU

Iragan astelehenean eman zioten hasiera Oargi elkartekoek Mendi Hamabostaldiari. Aste honetan zehar mendirako baliagarri den materialarekin azoka antolatuko dute, elkartearen bertan. Mendiko botak, eskiak, galtzak, xirak, forroak, mendi aldizkariak, egutegiak eta beselako produktuak daude salgai. Bertara bisita egin nahi duenak ostiralera bitarte

18:00etatik 21:00etara du aukera, larunbatean 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta igandean 16:00etatik 20:00etara. Azokarako materiala biltzeko epea ere ireki dute elkartekoek, ostiralarte, 20:00etatik 21:00etara. Bestalde, eta bi asteotan zehar, gune berean, euskal mendizalatasuna gai hartzen duen argazki erakusketa izango da ikusgai.

Datorren astea, bestalde,



Mendirako material mordoia topa daiteke Oargiko azokan. LEIRE MONTES

ekitaldiz blai dator, guztiak ere mendiarekin hertsiki lotuak. Astelehenean, 20:00etan, Jon Ander Goikoetxearen hitzaldia izango da. Lhotseko igoerari buruz. Asteartean, ordu berean, Mikel Garaikoetxeak, Eus-

kal Herriko Goi Mendiko irakasleak, mendian segurtasunez ibiltzeko irizpideak emanango ditu. Asteazkenean ere Karlos Galan espeologoak hitzaldia eskainiko du, eta hiru gairen gainean jardungo du: Ro-

raima Sur —munduko kuartziten kobazulorik handiena—, fauna haitzulotarra mehatxupean —Aralar— eta Ilargi Esne-ibaia —Ernio—.

Ostegunean hitzaldiekin jarraituko du hamabostaldiak. Patagoniatik zehar eginiko bidaiaren berri emango du Asier Izagirrek, 20:00etatik aurrera, elkartearen. Eta ostiralean Angel Jose Martinez eta Koldo Alava hizlariak *Al filo de lo imposible* saioko espedizioaren gainean ariko dira. Larunbatean, bi ekitaldi izango dira: 18:30ean, bideo emanaldia egingo du Teixus Barandiaranek, abentura kirolen inguruan, *Hemen dena da posible* izenpean. Eta, 20:00etan, Angel Navasek McKlinley-ra eginiko igoera azalduko du.

Hamabostaldiari amaiera emateko, igandean, hilaren 20an, Erriora mendi irteera antolatuko dute. 09:00etan abiatuta. Bueltan, irteeran parte hartutakoek Oargi elkartearen bazkaria legea egingo dute.

HEZKUNTZA ▶

Gurasoei zuzendutako IV. topaketak gaurtik aurrera, «hezitzeke trebetasunak» lantzeko helburuz

Maiatza bitarte iraungo du, eta seme-alabak ardatz dituzten askotariko gaiak landuko dituzte

N. LATABURU

0 eta 16 urte bitarteko seme-alabek gurasoentzat, hezitzeke trebetasunak lantzeko eta hausnarketa egiteko asmoa daukatenentzat, topaketak antolatuko ditu Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak, seigarren urteaz. Familia sistema, bizitza zikloak, heziketa estiloak, osasun-heziketa eta drogomenepeko kotasunen prebentzioa, gara-

pen psikologikoa, heziketa sexu-afektiboa, komunikazioa, balore heziketa, erantzukizun-heziketa, hezkidetzak, eskolartzeak, autoestima, arauak eta mugak eta beldurren kudeaketa dira, esaterako, gurasoen topaketa hauetan landuko dituzten gaiak. Bi talde osatu dituzte, bata euskaraz, gaztelaniaz bestea. Errota Haur Liburutegi berrian garatuko dituzte eskolak, eta haurtzaindegia erabil-

tzeko aukera ere egongo da. Taldeak sortzerakoan Tolosako bizi diren gurasoek izan dute lehentasuna.

Hauek izango dira topaketak landuko diren egunak: urte honen bukaera bitarte lau saio izango dituzte, gaur eta hil honen 17an lehen biak, eta abenduaren 1ean eta 15ean gainetarako biak. 2006rako, berriz, beste data hauek finkatu dituzte: urtarrilaren 12an, 19an eta

26an; otsailaren 2an, 9an eta 16an; martxoaren 2an, 9an eta 16an; apirilaren 6an eta 27an, eta maiatzaren 4an, 11n eta 18an, azkenik. *Denon zeregina delako*, *ekin bideari* leloepko programaren barnean sartzen dira topaketa hauek; Gazteria sailak, Gizarte Zerbitzuek eta Berdintasunerako Zerbitzuak elkarlanean eginiko ekimenaren harira antolatuko dituzte topaketak. Gurasoek aukera

izango dute berdintasunaren inguruan hausnartzeko eta eztabaidatzeko, beti ere haien seme-alaben hezkuntza eta hazkuntza prozesuarekin lotuta. Mezu zuzena bidaltzen diete udal ordezkariek gurasoei: «Zure seme-alabak berdintasuna bultzatzen duen ingurune batean hezi nahi dituzu. Zuk nahi duzun gizarte horretan, neska nahiz mutila izan, denok aukera berak izango dituzte ikasteko, lan egiteko, kirola egiteko, jaietan disfrutatzen. Informazio gehiago nahi duenak Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezake, 943 69 74 60ra hots eginez edota gizartezerbitzuak@tolosakoudala.net helbidera idatziz.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Alegian, 120m²-ko etxebizitza salgai. Guztiz berritua. San Joan kalean. Interesatuak deitu 609 47 30 81 zenbakira.

Eskape osoa. DEP markakoa. Honda CR 250 98, 99, 2000. Gubi erabilia. Telefonoa: 600 90 36 28 (Joxe).

LANA

Iturgina. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Interesatuak deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Ehiza garaian erabat murgildurik gaude, eta eskualdean ere makina bat izango dira eskopeta hartu eta postuen atzean uso bandoen zain jardungo direnak. Ehizaren aldekoa ala kontrakoa zara? Zergatik?» Hau da, besteak beste, gure webgunean proposatzen dizuegun eztabaida. Sartu bertan eta eman gai honen gainean duzun iritzia.

GIZARTEA ▶

Inauterien inguruko bilera izango da gaur

Tolosako Jai Batzordeak gaurkorako deia luzatu du. Izan ere, bilera egingo dute Tolosako Kultur Etxean, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Bileran eztabaidatuko dituzte 2006. urterako Inauterien gaineko gaiak. Jai Batzordeak herritar guztien parte-hartzea eskatu du Inauterien inguruko bilera honetarako.

KIROLA ▶

VIII. San Silbestre elkartean krosa, abenduaren 31n

Abenduaren 31n VIII. San Silbestre elkartean krosa izango da. Iaz bezala, Samaniego-Orixe ikastetxeko Kirol Eskolak antolatuko du, beste laguntzaile batzuekin batera. Jasotzen den dirua, bi GKE-iren bitartez (Ibarrako Mision taldea eta Calcuta Ondoan) Indiara bidaltzeko da; honeitarako, irteeran eta helmugan diru biltzea egingo dute.

GIZARTEA ▶

Soldadura eta galdaragintza ikastaroa

Tolosaldeko Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakinarazi duenez, bihar langabetuei zuzendutako soldadura eta galdaragintza ikastaroa hasiko da. Diru laguntza Eusko Jaurlaritzak eta Europako Fondo Sozialak ematen du; hortaz, ikastaroa doan izango da. Izen-ematea, ikastetxean bertan edo 943 65 11 47 telefono zenbakian.

GIZARTEA ▶

Kulturartekotasunari eta inmigrazioari buruz ariko dira gaur

Mahai-ingurua izango da Kultur Etxean Irazki elkarte kulturantzak antolatutako Magrebeko II. Jardunaldietan

IRATXE ETXEBESTE

Kulturartekotasuna eta inmigrazioa Euskal Herrian gai hartuta, mahai-ingurua izango da gaur Irazki elkarte kulturantzak antolatutako Tolosako Magrebeko II. Jardunaldien baitan; Kultur Etxean izango da solasaldia, 19:30etik aurrera, eta bertan parte hartuko dute Khaled El Haddami Azraf berebere elkarteko ordezkariak, Edriss Elsdiki El Manar elkarteko kideak, eta Abdati Mohamed Abdeljalil ATIS Itzultzaile eta Interprete Sozialen elkarteko ordezkariak.

Herenegun hasi ziren Magrebeko jardunaldien baitako ekitaldi gehienak larunbatean izango dira. 11:30etik aurrera askotariko ekimenetan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Kalejira, henna eta ogi tailerrak, dastatze gastronomikoa, haurrentzako ipuin kontaketa... Trianguloan izango dira horien denak, eta Ceuta eta Melillako hesiari buruzko kale erakusketarekin bukatuko dira goizeko ekintzak.

Arratsaldean, Ni, Mohamed antzezlan eskainiko du Aranburu Jauregian Zurriola Antzerki Eskolak, eta 21:30ean afaria izango da Abastos plazan. Bertara joan ahal izateko txartelak erosi behar dira al-



Iñaki Edrosoren argazkiak ikus daitezke Kultur Etxean. I. ETXEBESTE

dez aurretik, eta honezkero salgai dira Tolosako Orbela, Iratxo, 66 eta Raku tabernetan eta Ibarrako Zubiaurre tabernan, 12 eurotan. Bartzelonako Cheb Mouguit taldearen esku-tik kontzertua izango da afalostean, eta bi dantzarik sabel dantza saioa eskainiko dute.

Bestalde, *Magreb-a: herri eta kamioen bidegurutzea* izeneko argazki erakusketak dago ikusgai Kultur Etxean, eta hala egongo da Magrebeko II. Jardunaldiak irauten duten bitartean. Iñaki Edrosok egindako argazkiekin jarri dute Irazki-eko erakusketak.

ZESTA-PUNTA ▶

Elkarteen Artekoan badoa aurrera Beotibar

Nagusi eta kadete mailakoek bihar eta etzi izango dituzte txapelketako partiduak

I. ETXEBESTE

Zesta-Puntako Elkarteen Arteko Txapelketan lehen jarratzen du Beotibarrek, eta Kutxa Saria lortzeko bidean, asteburuan izango dituzte jokalariek hurrengo partidak. Uzturpe pilotalekuan jokatu-ko dute bihar, 19:45etik aurrera, nagusien mailako Beotibar 3 taldekoek Zumaia 2-koen kontra. Arratsaldeko lehen partidua izango da hori, eta Beotibar 3 defenditzen ariko dira Orrantia eta Mujika. Bigarren partiduan, berriz, Beotibar 1 eta Gazteleku 2 izango dira aurrez aurre. Kasu horretan, Trabanzos eta Rezola dira To-

losako zesta-punta taldearen alde jardungo dutenak.

Bihar aritu beharko dute, halaber, nagusien mailako Beotibar 2 taldea ordezkatzan dutenak. Artetxek eta Garmendiak Andoaingo Arrate pilotalekuan jokatu-ko dute, 20:00etan, Gazteleku 4koen aurka. Hirugarren partidua izango da haiena.

Azkenik, kadete mailakoek Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan jokatu-ko dute larunbat goizean hango Donostia Jai Alai 1 taldearen kontra. 11:00etan hasiko da norgehiagoka, eta Beotibar 2 taldearen alde egingo dute lan Izagirrek eta Bildarratzek.

GIZARTEA ▶

Etorkinek errolda berri- behar dute udaletxean

Hori egin ezean «baja» emango zaiela esan du Udalak; abenduaren 21a da azken eguna

I. ETXEBESTE

«Tolosako Udalak gutun bat bidali die 2003ko abenduaren 21a baino lehen Tolosan erroldatuta egon, eta behin betiko erresidentzi baimena ez duten etorkin guztiei, bere bulego orokorretara azaldu

eta errolda berri- dezentan». Iraungipena dela eta, errolda eguneratzen ez duenari «baja» emango zaiola jakinarazi dute Udaletik, eta errolda berri- dezentatuta egon, eta behin betiko erresidentzi baimena ez duten etorkin guztiei, bere bulego orokorretara azaldu dute erroldaren berri- tzea.

hitza lagunena
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegietako kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

HERNIALDE ▶ KIROLA

Rolleski Igoeran lehiatzeko aukera izango da larunbatean

Alpino Uzturre elkarteak antolatzen du eta 60 bat parte-hartzaile espero dituzte

ERREDAKZIOA

Hernialdeko Rolleski Igoera larunbat honetan izango da, Tolosako Alpino Uzturre elkarteak antolatuta. Rolleskia iraupen eskiazaileek asfalto gainean entrenatzeko erabiltzen duten bi gurpildun eski modukoa da. Antolatzaileek 60 parte-hartzaile inguru espero dituzte, Gipuzkoatik eta Nafarroatik, nagusiki.

Ibilbideak bi zati ditu: 800 metro lauak eta gero 3,2 kilometroko igoera. Bi modalitate izango dira: klasikoa eta skating. Klasikokoek igoera soilik egingo dute Hernialdeko Bentatik abiatuta. Skating-ekoek ibilbide guztia egingo dute Tolosako Belate auzotik hasita.

Dortsalak 15:30ean Belate auzoan jasoko dituzte, eta proba 16:00etan hasiko da. Parte-hartzaile guzientzat bereziki prestatutako kamiseta eta merienda banatuko diete. Sariak bi mailatan banatuko dituzte: gazteak —1990. urtetik aurrera



Hernialdeko Rolleski Igoeraren aurreko edizioetako baten irudia. HITZA

jaiotakoak— eta helduak. Izen-ematea doan da, eta datuak —izena eta bi abizen, jaiotze urtea eta elkarte edo herri-

koa den zehaztuz— Alpino Uzturre Elkartera bidali behar dira, Tolosako Gudari kalea, 5 helbidera edo alpinouztu-

rre@hotmail.com posta elektronikora. Argibide gehiago 685 77 65 04 telefono zenbakian, arratsaldetan.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketan parte hartzea zabalik dute eskualdeko literaturzaleak

Udaleko Euskara sailak antolatzen duen deialdi honen xedea idazteko zaletasuna sustatzea da

ERREDAKZIOA

Idazteko zaletasuna sustatu nahian, Zizurkilgo Udaleko Euskara sailak Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketa antolatzen du. Andoain, Aduna,

Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larrault eta Zizurkilgo herritarrek hartu dezakete parte. Lanek egile bakarra izan behar dute, eta gehienez partaide bakoitzak bi lan aurkez ditzake.

Lehiaketa bost mailatan banatuko da: A maila, 6 eta 8 urte bitartekoentzat; B maila, 9 eta 11 urte bitartekoentzat; C maila, 12 eta 13 urte bitartekoentzat; D maila, 14 eta 16 urte bitartekoentzat; eta E maila, 17 urtetik gorakoentzat.

Lan bakoitzaren lau kopia entregatu beharko dira hilaren 28a bitartean, egun hau barne, 14:00ak baino lehen, Zizurkilgo udaletxean edo udal bulegoetan. Izenburuaren alboan, egilearen izen goitia eta adina

jarri beharko dira, egilearen nortasuna gordetzeko. Lanekin batera, gutunazal itxi bat aurkeztu behar dute parte-hartzaileek. Haren barnealdean lanaren egilearen izen-deiturak, helbidea, telefonoa eta adina jarri behar dituzte. Sobreen kanpoaldean, berriz, lanaren izenburu berbera eta egilearen adina soil-soilik.

Sari banaketa abenduaren 23an egingo dute, eta bertan saritutako lanekin egindako argitalpena aurkeztuko dute.

ULI MANKOMUNITATEA

AGIRI HONEN BIDEZ, DINAMIZATZAILE SOZIALEKO LANPOSTU BATERAKO DEIALDEIA EGITEN DA.

Uli Mankomunitatean, Dinamizatzaile soziala lanposturako langile bat behar da.

BALDINTZAK:

- 1.- Gizarte-Laneko edo Gizare Laguntzaile izateko diplomatu titulua izatea.
- 2.-Euskera: 3. Hizkuntza eskakizuna izatea (E.G.A)
3. Kotxea edukitzea.

BALORATUKO DIRA:

- Dinamizazioarekin zerikusirik dituzten ikasketak, ikastaroak
- Arlo honetan esperientzia edukitzea

"Curriculum-Vitae"-a eta tituluak azaroaren 10etik 16ra bitarte Belauntza, Gaztelu, Orexa eta Leaburuko udaletan eta Uli Mankomunitatean aurkeztu beharko dira.

Orexan, 2005eko azaroaren 8an • LEHENDAKARIAK



LIZARBI

Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak • Zurgintza orokorra
Tailakeskuz eginak Zaharinen berriztatzea

San Esteban auzoa
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

AMASA ▶

Gazteen Eguna gaurkoan sanmartinetan

Amasako San Martin jaiak atzo eman zieten hasiera ofiziala Kultur Etxetik suziri jaurtiketa eginez. Gaur, Gazteen Eguna ospatuko dute. Goizetik ariko dira herriko gazteak baserriz baserri, 06:00etan Ongi Etorri tabernan elkartu ondoren. 14:00etan bazkaria egingo dute Uxo-toki elkarteak. Bazkaldu ondoren soka dantza eta aurrakua egingo dituzte plazan. Trikitilariekin erromeria izango dute gero eta, amaitzeko, afaria Arantzabi jaietxean.

IRURA ▶

Doako ikastaroak egiteko aukera

Irurako Udalak doako bi ikastaro eskaini nahi ditu abenduan eta urtarrilean. Ardo dastaketa, hasiberrientzako sukaldaritza eta gozongintza dira aukerak, baina hauetatik interes gehien pizten duten biak soilik emango dira. Lehengoak 20 orduko iraupena izango luke, gutxienez 12 eta gehienez 14 partaide behar dira, eta aldiko 2 orduko saiotan emango litzateke astean behin edo bitan. Beste biak 30 ordukoak dira, 15 lagun behar dira taldea osatzeko, eta hauek ere 2 orduko saiotan emango dira, interesatuek aukeratzen badiuzte. Beraz, adin nagusiko interesatu guztiek udaletxean edo liburutegian eman dezakete izena. 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz edo kultura.irura@udal.gipuzkoa.net helbidera idatziz, hilaren 25a baino lehen.

ANOETA ▶

Bertso eskola eta marrazketa haurrentzat

Herri Ikastolan, azarotik aurrera, Bertso Eskola jarri nahi dute martxan, LH 3tik DBH 1erako ikasleentzat. 11 euroko kostua izango du. Hain zuzen ere, bihar da izena emateko azken eguna. Bestalde, marrazketa ikastaroa ere jarriko dute martxan, LH 1 eta DBH 4-koentzat. Ikastaroaren kostua 36 eurokoa izango da. Izena emateko azken eguna ere bihar izango da.



**DAGOENEO ABIAN DA #90. PROIEKTUA:
IPUPOMAMUA ASTEASUN.**

Inbertsioa 600.000 euro

Ipu- ipuinak. Po- poesia. Ma- marrazkiak.
Mu- Musika. Ipupomamua euskeraz sortzeko
gunea izango da. Artea eta hizkuntzaztertzen
dituen foroa da. aitzindari izan nahi duena.
Proiektuak heratago dagoen proiektua.
Aperteko Inbertsio Planaren barruan aurrera
doan errealitatea da. Tolosako Usabai hiriolegia,
Leidor berria, Fraisoro zaharberritzea eta
Iurramenoko zahar egoitzaren egokitzea
bezalaxe... Egunetik egunerá errealitate bihurtzen
ari zaren proiektuak dira.

Aperteko Inbertsio Plana.
Tolosaldean ere bai.

Aperteko Inbertsio
plana 2004-2007



Plan extraordinario
de inversiones 2004-2007



Euzko Legebiltzarra
Euzko Legebiltzarra

BALIARRAIN ▶ KULTUR ASTEA

Hitzaldiak eta gastronomia, Kultur Elejiraren ardatzak

Gaur hasiko da Baliarraingo Kultur Elejira; hilaren 20a bitarte iraungo du, eta askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, Jubilatuen Eguna barne

MARTA SAN SEBASTIAN

Hitzaldi mordo, tailerrak eta beste zenbait ekintza antolatu dituzte Baliarrainen aurtengo Kultur Elejiran. Lehen ekitaldia gaur izango da: perretxikoen inguruko hitzaldia. Kultura eta gastronomia izango dira ardatz nagusiak, eta hilaren 20a bitarte iraungo dute antolatutako ekintzek. Luzea izango da, beraz, aurtengo Kultur Elejira.

Gaur, hortaz, Aranzadi Zientzia Elkarteke Ibai Olariaga izango da Baliarraingo Udaleko kultur gelan. *Euskal Herriko perretxiko jangarri eta pozoin-tsua*k mintzagai duela, hainbat irizpide emango dizkie bertaratutakoek mendian perretxikoak ezberdintzen jakiteko. Iluntzeko 20:00etan izango da hitzordu hori.

Bihar, aldiz, Nerea Errarte ipuin kontalariak haurrentzat saioa egingo du, 17:00etan. Ume txikieneztat ere izango da emanaldia, baina «haurrek bokalak ezagutzea» gomendatzen du Nerea Errartek. Ondoren, 19:30ean, Kike Amonarrirek eta Antxon Olariagak *Lais-ter maister: inkomunikazio ikastaro azkarra* izeneko hitzaldia eskainiko dute. Euskararen erabilpenari buruz hausnarketa egingo dute, beti ere, euren ohiko modu umoretsuan.

Asteburuan bete-betean sartuta, ekitaldiak ez dute behea joko. Etzi, larunbata, 17:30ean, haurrentzat alfareri eta buztin modelatze tailerra antolatu dute. Hau ere kultur gelan izango da. Igandean, aldiz, Baliarraingo Arkaitz elkar-tearen eskutik, herri bazkaria egingo dute. Bazkaria eta gaz-



laz, haurrentzako eta gazteboentzako tailerra antolatu zuten Kultur Elejiraren baitan. OLAIJA ESKITXABEL

tain jana ere izango da. Menua hauxe izango da: patatak errioxar erara, saheskia, gazta eta irasagarra eta, amaitzeko, gaztai erreak. Bazkarirako txartelak 15 euro balio dute, eta 13 urtez azpikoentzat, aldiz, 12 euro. Jankideen zerrenda egina dago, baina oraindik txartela erosi nahi duenak aukera izango du. Bazkariaren ostean, txerriaren zozketa egingo dute.

Ekitaldiak aurrera darraite

Kultur Elejiraren baitan Baliarraingo Udaleko antolatu dituen ekintzak ez dira asteburu honetan amaitzen. Izan ere, dato-

rren asteburuan ere hainbat ekitaldi izango dira. Alde batetik, hilaren 19an, larunbata, Peio Zabalak eta Andoni Aizpuru eguraldiaren eta tenporen inguruan hitzaldi emango dute. 19:30ean izango da, kultur gelan.

Aurtengo Kultur Elejiraren azken eguna hilaren 20a izango da, igandea. Egun horretan Jubilatuen Eguna ospatuko dute herrian. Eguneko lehen ekitaldia Meza Nagusia izango da, 11:15ean. Ondoren, hamaitzakoarekin sabela ederki bete dute elizkoiek zein gainerrako herritarrek. Mokadutxo hartu ostean, hitzordu berezia

izango dute baliarraindarrek. Aurtengo jaietan bildutako irudiekin bideoa egin dute eta, hain zuen ere, horixe ikusteko parada izango da. 13:00ak inguruan izango da bideo emanaldi hori. Ondoren, bazkari legea egiteko elkartuko dira guztiak.

Beraz, herri giroan eta mahaiaren bueltan elkartuz emango diote amaiera aurtengo Kultur Elejirari Baliarraingo herritarrek. Astea luzatu eta astebete baina gehiago iraungo du aurtengoan Kultur Asteak. Baliteke joan den urtean norbait gehiagorako gogoz geratu izana.

BALIARRAIN ▶

‘Belardo belar metaren ibilerak’ ipuin kontaketa

Galtzaundi Euskara Taldearen eskutik, *Belardo belar metaren ibilerak* ipuin kontaketa saioa izango da bihar Baliarrainen. Iñaki Martiarena marrazkilaria izango da saioaren gidaria. Herriko haurrentzat izango da hitzordua, beraz, 17:00etan, Kultur Etxean.



Haurrentzako saioa da. HITZA

ALEGIA ▶

Alegian jaio edo bizi direnen afaria

Larunbat honetan, 1956ean edo 1957an Alegian jaio zirenek edota gaur egun bertan bizi direnek afaria egingo dute.

LEABURU ▶

Bide Eginez batzarra egingo dute gaur

Bide Eginez batzarra egingo dute gaur, 20:00etan, gazte gelan. Azken lau urteotako balantze politikoa eta Bata-sunak aurrerantzean defendatuko duen ildo politikoa aztertuko dute.

hilberriak ▶



Miguel M^a Tolosa Otamendi

jauna

Herenegun hil zen, 69 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golán bego-

Bizitza, agian, amaitzen den gauza bat izango da, baina maitasuna inoiz amaitzen ez den sentimena da.

Zure ilobak

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko SEIETAN, IURREAMENDIKO kaperan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ lurramendi egotza oharra ▶ gorputz beila lurramendiko tanatorioan egingo da, gaur 10:00ak arte

TOLOSAN, 2005eko azaroaren 10an

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

BERROBI ▶ FRONTENIS

Hastear da XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa

Hilaren 19tik abenduaren 7ra bitarte izango da; gaur da izena emateko azken eguna, eta zozketa egingo dute



Pasa den urteko Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketako irabazleak. OLAIJA ESKITXABEL

IÑIGO TERRADILLOS

Hilaren 19tik abenduaren 7ra bitarte jokatu da aurtengo Berrobiko XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Hain zuzen ere, hilaren 19, 20, 26 eta 27an jokatu dira lehen parti-

dak, eta abenduaren 3, 4 eta 7an izango dira finalak.

Kirol honen jarraitzaileen-tzat hitzordu garrantzitsu bilakatu da Berrobiko txapelketa, eta urtero bertako nahiz Donostia edo Iruñea bezalako herrietako parte-hartzaile ugari

izaten ditu. Parte-hartzaileen artean, berriz, aipatzekoa da Niko Artola berrobitarak orain arte egin duen lana, iazko garaipenarekin 9 txapela jantziak baititu, txapelketako aurkari gogorra bihurtuz.

Bestalde, aurtun parte har-

tzeko asmoa dutenek bizkor ibili beharko dute, gaur izango baita izena emateko azken eguna. Horretarako, Berrobiko udaletxera (09:00etatik 14:00-etara), Iturriza janaridendara eta Iriarte jatetxera eta Tolosako eta Donostiako Aralar kirolak dendetara jo beharko dute. 10 euro ordaindu beharko dituzte bikoteka ariko direnek, eta 5 euro, berriz, banaka lehiatzeko asmoa dutenek. Halaber, gaur izena emateko azken eguna den bezala, zozketa eguna ere izango da, 21:00etan Etxola aretoan, hain zuzen ere. Beraz, parte-hartzaileek gaur jakin ahal izango dute noiz eta noren aurka dituzten partidak.

Jokatzeko era eta sistemari dagokionez, beste urteetako berbera erabiliko dute, baina arauetan aurtengoan bada berezitasunik. Defentsan nahiz erasoan pilotari ematen ez bazaio, aurkariarentzat bi puntu gehiago batuko dira; adibidez, jokalar batek dejada egiten badu eta aurkaria pilota ukitu ere egitera ez bada iristen bi puntu batuko lituzke jokaldia egin duenak.

Omenaldi kutsua

Jon Ander Izagirre herritar zenaren omenez egiten dute txapelketa 1996. urteaz geroztik. Hura hasi zen txapelketako antolatze lanetan, eta parte hartu zuen guztietan lortu zuen txapela janztea. Auto istripuz hil zen geroztik, bere izena du frontenis txapelketak. Modu horretara omendu egiten dute lagunak.

BERASTEGI ▶

Odola emateko aukera eskolan hilaren 14an

Datorren astelehenean, hilaren 14an, eta betiko orduan, hau da, 18:30etik aurrera, Berastegiko Muñagorri eskolan odola emateko aukera izango da berriz. Berastegiko odol emaleen elkartetik gazte jendea batez ere animatu nahi dute, odol emaleen artean hirutik bat soilik baita 35 urtetik beherakoa.

IBARRA ▶

Eneko Aritza elkartean bilera bihar

Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarrekin bilera egingo du bihar. Bertan datorren urteko uztaila bitarte asteburu bakoitzean grabatuko dutena zehaztuko dute. Beraz, ahalik eta jende gehien animatu nahi dute parte hartzera. 20:00etan izango da hitzordua, Ibarra plazan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaro zko dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

BERASTEGI ▶ GIZARTEA



135 kiloko basurdea bota du herriko ehiztari taldeak

I. Terradillos ▶ Ehiza garaian erabat murgilduta daude ehiztariak, eskopetak eskuan eta zakurren laguntzarekin, batzuk usoen atzetik, eta beste batzuk, berriz, basurdeen atzetik ibiltzen direneko sasoa, beraz. Hain zuzen ere, basurdeak ehizatzen jarduten du Berastegiko ehiztari talde batek, eta pasa den larunbatean sorpre-

sa «galanta» izan zuen. Izan ere, 135 kiloko basurdea bota zuen Juanito Etxorde-k Gorrotola izenarekin ezagutzen den Berastegiko zonaldean. Horrelako saria jasotzea ez omen da erraza, eta horregatik gustura daude ehiztariak; izan ere, denek izango dute bere zatia, koadrilakoen artean banatzen baita lortutakoa. HITZA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Astesu. Udaltalde 21 Ernioaldea herri batzarra antolatuko du. 19:30ean, udaletxean.

Leaburu. Bide Eginez batzarra. 20:00etan, gazte gelan. Azken 4 urteetako balantze politikoa eta Batasunak aurrerantzean defendatuko duen ildo politikoa aztertuko dituzte.

HITZALDIAK

Baliarrain. Aranzadi zientzia elkarteko Ibai Olariagak *Euskal Herriko perretxiko jangarri eta pozointsuak* hitzaldia eskainiko du. 20:00etan, kultur gelan. Kultur Elejiraren baitan.

Ibarra. Ana Elbusto dieta mediterraneoaren onuzer ariko da Bizi Nahi jubilatuko elkartearekin, 19:00etan.

Tolosa. Magrebeko II. Jardunaldien barruan, mahai-ingurua kulturartekotasunaz eta inmigrazioaz Euskal Herrian. 19:30ean, Kultur Etxean.

Villabona. Maria Teresa Gaztañaga Gipuzkoa Poliklinikako sendagile nutrizionistak dieta eta buru arintasunaren mantenua izango du ardatz. 17:00etan, Biltoki jubilatuen elkartearekin.

JAIK

Amasa. Gazteen Eguna: 06:00etan, gosaria Ongi Etorri tabernan trikitilari eta dultzaineroekin; 14:00etan, gazteen bazkaria Uxo-Toki elkartearekin; 16:30ean, soka dantza eta aurrekua, plazan; ondoren, trikitilarien erromeria; 21:00etan, afaria Arantzabi jatetxean.

ZINEMA

Tolosa. *El señor Ibrahim y las flores del Corán.* 21:30ean, Kultur Etxean. Tolosako Zine-Klubak antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea, 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaro, 9. 943 67 51 18.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Josu Oterrin (Anoeta), Gaur 7 urte. Maialen, Mikel, aita eta amaren partetik. Moxu asko!

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoizetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

KutxaNominen bezero izateak dituen abantailak entzutea gozamen hutsa da.

Aurrerantzean, zure nomina **kutxan** helbideraturik izanez gero, **KutxaNominen** finantza-abantailak izateaz gainera, 400 sarreraren zozketan hartzen duzu parte (pare bat saridun bakoitzeko), kontzertu bikain honetaz goza dezazun.

Ez al da gozamen hutsa **KutxaNominen** bezero izatea?

Stabat Mater (Rossini)
 Donostiako Orfeoia
 Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Azaroak 16
 Kursaal Auditorioa.